

# Idoia Santamaría eta Maialen Berasategiri elkarrizketa

ITZIAR MURGIENDO AGIRRE

«1990 eta 2017 bitarteko narratiba-lanen itzultzaileen azterketa genero-ikuspegitik»\* gradu amaierako lanaren aitzakian elkartu genituen Maialen Berasategi Catalán eta Idoia Santamaría Urkaregi, Donostiako Tabakaleran, 2018ko udan. Urte horien artean euskara itzuli eta argitaratutako narratiba-lanei dagokienez emakumezko itzultzaileen hutsunearen atzean zer arrazoi egon zitezkeen arakatzeko asmoz jo genuen haiengana. Beren esperientzietan oinarritutako galderak abiapuntu gisa hartuz, datuen gainean zer interpretazio egiten duten jasotzeko xedea zuten galderek. Edonola ere, datuak eta galderak mahai gainean, ahalik eta librean aritzen utzi genien.

**ITZIAR MURGIENDO:** Noiz hasi zineten literatura itzultzen?

**IDOIA SANTAMARÍA:** Uste dut 1991n egin nuela lehena. Literatura Unibertsalekoa zen, ingelesetik, E.M. Forsterren liburu bat: *Aingeruak nekez ausartzen diren tokian*. Ikaragarri zaila egin zitzaidan. Gaur egun iruditzen zait sekulako ausardia izan nuela horrelako gauza batean sartzen orduan. Iru-

ditzen zaizu itzultzen duzunez edozer itzuli-ko duzula, ezta? Ausardia horrekin. Ez dakizu zer dakizun, eta inkontzientzia horrekin. Ingelesa badakizu eta euskara badakizu, ba itzuli. Egin zitzaidan terriblea. Eta gero beste batzuk egin ditut, gaztelaniara ere bai.

Liburuen mundua gauza bat da; literaturaren mundua oso mundu aparteko gauza bat da, oso mundu prekariora delako ordainketa aldetik. Nik oso aparte jarri izan dut

---

\* Aldizkariaren zenbaki honetan bertan argitaratua da azterketa (127 - 140 orr.).

hori. Nik uste dut horretan dabilenak egiten duela batez ere gustatzen zaiolako. Eta literaturarena, egia esan, aparte utzita eduki dut urte askoan, beste mila gauzatan sartuta nembilelako, eta horrek niretzat eskatzen duelako ez bakarrik denbora, baizik eta kalitatezko denbora. Lehengo urtean animatu nintzen berriz alemanetik itzultzeko beste liburu batekin, eta, egia esan, oso gustura aritu naiz, nahiz eta buruko minak eman dizkidan, eta orain nago beste batean sartuta, eta honek emango dizkit oraindik ere buruko min handiagoak.

**ITZIAR:** Eta zu, Maialen, noiz hasi zinen itzultzen?

**MAIALEN BERASATEGI:** Ni hasi-hasi 2011n hasi nintzen, *Berrian* lanean, bekadun, eta han batez ere zuzenketak egiten genituen, baina noizbehinka prentsako lanak itzuli ere egiten genituen, eta uste dut oso modu ona dela hasteko, ze testu dibulgatiboak eta «samurrak» izaten dira; ez dira literarioak, eta forma aldetik ez dira super konplikatuak, eta hala hasi nintzen. Gero, zuzenean, hurrengo urtean Literatura Unibertsaleko lehiaketan probatu, eta lortu nuen liburutxo bat itzultzeko aukera; hor ere uste dut zorzea izan nuela, ze oso liburu laburra zen Rebecca Westen hura [*Soldaduaeren itzulera*].

**ITZIAR:** Zu ere irabazi zenuenean aurkeztu zinen lehenengoz, Idoia?

**IDOIA:** Ez dakit nola izan zen. Nik uste dut nirea 1991koa dela, eta ez dakit orduan lehiaketak oraingo moduan funtzionatzen ote zuen. Ez naiz akordatzen. Bai, pentsatzen dut laginen bat bidali behar izan nuela,

baina ez naiz akordatzen. Izatekotan, hura izan zen nire lehendabiziko saioa literaturan. Baina esan nahi dut nik literaturan ez daukadala ibilbide luzerik. Beti eman dit beldur dezente, onartu beharra daukat hori ere; beldur dezente gauza askorengatik: behin ere ez dakizulako hasten zarenean zailtasuna zenbaterainokoa den. Zuk irakurtzen duzu, eta, nahiz eta itzultzaile-begiarekin irakurri, azkenean irakurleak irabazten du, beti. Orduan esaten duzu: «A, bale, egin liteke». Baina gero hasten zara, eta esaten duzu: «Aitaren eta semearen, zeinek esan dit niri hau erraza zela?». Eta gainera ez dizu inork esan, zerorrek esan duzu. Niri, alde horretatik, errespetua ematen dit. Gero badaude bi gauza. Errespetua, batetik, ezjakintasun horrek ematen dizun errespetua; «ez dakit gai izango naizen», zure mugak ezagutzen dituzulako. Eta, bestetik, badago literatura-zale askori gertatzen zaigun gauza bat, beti daukazula sentsazioa testu sakratu baten aurrean zaudela. Horrela hurbiltzen zara, ezta? Eta beldur horrek —beste testuen aurrean izaten ez dugun beldur horrek— batzuetan lagundu egiten du errespetu handiz ari zarelako, baina beste batzuetan freno ere bada. Esaten duzu: «Ea, testu sakratua ez, hau irakurle batek irakurri behar du eta gustatu behar zaio. Ahaztu txorakeriak. Ahaztu pixka bat sentsazio hori». Eta, asko gustatzen zaizun autore bat baldin bada, are gehiago. Koro Navarro batek edo Xabier Olarra batek, hogeitaka liburu itzuli dituztenez, seguruenik beste esperientzia bat izango dute.

**ITZIAR:** Zuk esango zenuke lehenengoz aurkeztu zinen eta gaur egun daukazun

beldur hori, errespetu hori zor diozuna testuari, berdina dela? Aldatu da?

**IDOIA:** Nik esango nuke gaur egun handiago dela. Momentu hartan nik ez nuen ikusten inolako eragozpenik. Nik lehenengo urtean, adibidez, Dürrenmatten lagina [*Epailea eta haren borroeroa*] egin nuenean, pentsatu nuen: «Joe, Idoia, bai? Egingo duzu?». Nik uste dut gaur egun errespetu handiagoa daukadala. Orain ez daukat inkontzientziarik: hasiera-hasieratik naiz kontziente, «sartzen ari zara ur handi samarretan», baina, tira, halere, badago har mardarikatu bat...

**MAIALEN:** Zorionekoa, e.

**IDOIA:** Zorionekoa ere bai, hori da.

**ITZIAR:** Zure aldetik, ez da horrenbeste denbora pasatu, baina zer esango zenuke?

**MAIALEN:** Ez, baina oso urte gutxian hamai-ka mila fasetatik pasatzen zara; ni behintzat pasatu naiz. Pasatu naiz hasierako «probatuko dut» *felix* horretatik; gero, boladak eduki ditut, krisi garaiak: «Nik hau ezin dut, ez dakit ezer, nola hasiko naiz 25 urterekin literatura itzultzen, gutxienez 50 urte bete arte eta ondo-ondo-ondo formatu arte ni ezin naiz hemen sartu». Eta gero konturatzen zara horrela hasten bazara ez duzula ezer ere egingo zure bizi guztian. Igual ez zara, gainera, 50 urtera iritsiko. Orduan, esaten duzu: «Bueno, beste batzuek egin dute». Nik uste dut asko laguntzen duela horrek, hau da, ibilbide bat daukazuen horietan fijatu, eta esan: «Haiek ere batzuk oso gazte hasi ziren, eta egin zuten, eta gainera txukun, eta perfektu ez dugu egingo inoiz; beraz, saiatuko

naiz ahalik eta ondoen egiten». Orain nago pixka bat berriro animatzeko gogoz, azken pare bat urte hauetan... Errespetua beti, baina beldurra ez. Eta betiere norbere mugak kontuan hartuta. Alegia, nik badakit zer liburu itzultzen saia naitekeen, eta zer liburutan ez nintzatekeen sartuko ezta zoraturata ere. Ez bainioke faborerik egingo neure buruari, eta irakurleei ere ez.

**ITZIAR:** Westena egin zenuenetik, aurkeztu al zara berriz ere?

**MAIALEN:** Ez. Hor izan da fase hori. Oso kasu tipikoa da hori ere, ez? Lehenengoan presentatu, lortu, eta esaten duzu: «Orain tokatzen zait ez lortzea; presentatuko naiz eta ez didate emango, eta *bajoia*...». Eta denbora-kontuengatik ere izan da. Baina bai, pentsatu izan dut: «Nik jada egin dut, aurkeztu naiz, eman didate, eta igual jada ez naiz saiatu ere egingo; horrekin geldituko naiz; nire garaipentxo txiki hori hor jarriko dut, bitrina batean». Eta urte batzuk horrela pasatu ditut. Aurten egon naiz berriz presentatzekotan; denbora-kontuengatik ez naiz presentatu, baina ez dut baztertzen berriro aurkeztea. Eta asimilatzea ematen ez badidate ez dela ezer gertatzen. Urteak ere ez dira alferrik pasatzen, eta, pixka bat helduz zoazen heinean, onartzen dituzu porrot txiki horiek ere, natural-natural.

**IDOIA:** Nik batzuetan ere pentsatzen dut. Horrelako itzulpen bat egokitzen zaizunean edo, hasieran sartzen zaizu *subidoi* bat, eta horrekin batera *bajoia*.

**MAIALEN:** Bai... presioa...

**IDOIA:** Presioa, beldur hori... Eta nik onartu beharra daukat neure buruari esan egin behar diodala: «Gaizki ateratzen bada, ez da mundua bukatzen». Baina badaukazu halako sentsazio zera bat... Jende guztiak ditu ondo lortutako gauzak eta porrot monumentalak bizitzan; eta esaten diozu zeure buruari: «Ez da ezer gertatzen; liburu bat da, ez zara neurokirurgialaria».

**MAIALEN:** Bai, hori da, ez da inor hilko.

**IDOIA:** Behar da pixka bat presio hori zure burutik ere kentzeko. Batzuetan, nekea ere bada, nekeak eragindako zera hori. «Ondo atera behar du honek eta ondo egin nahi dut», eta horrek berak ere akitu egiten du. Eta neke horrek ere eragiten du batzuetan...

**MAIALEN:** Negatibotasuna.

**IDOIA:** Negatibotasun hori. Zaila da; nik uste dut izaerarekin ere oso lotuta dauden gauzak direla. Oraindik neure buruarekin egin behar izaten dudan ariketa bat da. Baina egia da norberak bere buruari jartzen dion presio hori fuerte samarra izaten dela. Gero, ikasten zoaz.

**MAIALEN:** Nik komentatu nahi nuen, gai honekin lotuta, ausardiaren kontuan-eta asko lagundu didala feminismoan sartzeak eta ahalduntzeak eta lagun feministak izateak, elkar babesteak, konturatzeak «gizon hauek egin badute, guk zergatik ez?».

**ITZIAR:** Zuek esango zenukete zuek bizi izan duzuen beldur hori edo ausartzeko zailtasun hori eta gizon batek izan dezakeena parekoak direla? Emakumezkoak gauzak bikain

egiteko hezten dituzte, eta gizonezkoak ez hainbeste. Horrenbestez, «bueno, probatuko dut» horretatik ez al daukate gehiago?

**IDOIA:** Ez dakit. Neurri batean, seguruenena, badago zerbait, zeure buruari presio hori jartzeko, ezta? Hori oso tipikoa izaten da. Zaila egiten zait orokortzea, egia esan. Egia da baita ere itzulpengintzaren hasierako izen handien artean badirela batzuk pisu handia izan dutenak, ez bakarrik itzultzaile bezala, baizik eta baita irakasle bezala ere. Juan Garzia, adibidez. Eta horrek oraindik, ez dakit nola esan, presioa areagotu egiten du, neurri batean. Inork ez dizu, ustez, presiorik jartzen, zeure buruari jartzen diozuna bakarrik, eta ikusten duzu, bada, ez direla bakarrik —batzuk— onak, nolabait esateko, alor batean, baizik eta menderatzen dutela alor horrekin lotuta dauden beste hainbat; adibidez, hizkuntza bera tresna bezala erabiltzearena. Batzuk badira zirkulu osoa osatzen dutenak. Eta, nik uste, hasierako horretan badaudela gizon batzuk pisu handia izan dutenak eta oraindik ere izango dutenak. Hor badaude batzuk Errenazimentuko pertsonaiak bezalakoak direnak. Kultura guztietan egongo dira horrelakoak; problema da gurean oso gutxi garel, eta orduan presioa nolabait gertuagotik nabaritzen dela. Oso gutxi garelako denera, eta oso gutxi gara itzultzaileak.

Orduan, hori nabaritu dut? Bai, baina ez dakit gizonezkoak direlako gertatu zaidan, ziur asko ez, gehiago niretzat Errenazimentuko pertsonaia baten aurrean nengoelako, nolabait esatearren. Seguruena, emakumea balitz, berdin-berdin. Orain, igual emakumea izan balitz errazago hurbilduko nintza-

teke halako pertsona batengana, eta ez litzaidake irudituko hain gauza zaila? Ez dakit.

Baliteke. Hor daukazu bikaintasun hori, eta horra ezin zara iritsi. Ikuspegi horrek nik uste dut baduela guregan eragina. Nik, adibidez, gustura entzungo nuke honi buruz Koro Navarrok daukan iritzia, belau-naldi horretako pertsona bat jartzeagatik, emakumeen artean kopuru aldetik inork baino gehiago itzuli duena, eta gainera liga handian jokatzeko duena. Jakin nahiko nuke alde horretatik berak nola bizi izan duen hori. Nik Koro irakasle bezala ere ezagutu dut, ni unibertsitatean nenbilenean, eta ez zitzaidan sekula iruditu inoren itzalean zegoen pertsona bat. Orain, hori gauza bat da; beste kontu bat da berak nola bizi izan duen barrutik; hori ez dakit. Niri zaila egiten zait generalizatzea.

**MAIALEN:** Nik uste dut, berriz, beharrezkoa dela generalizatzea, sistema bati buruz ari garelako, ez delako kasualitatea hasierako *jainko* horiek gehienak gizonezkoak izatea; pertsona bat edo beste bat nolakoak garen gorabehera, nik nahiko argi daukat gizonak askoz ere lasaiago sartzen direla horrelako itzulpenetan, literarioetan-eta... Daukaten adina daukatela, gainera. Eta emakumeetan badaude pertsona batzuk ez daukatenak inolako erreparorik eta lasai-lasai sartzen direnak, baina nik uste dut, kolektibo moduan, askoz ere erreparo handiagoa, beldur handiagoak ditugula; «ni nor naiz hor sartzeko» esaldi hori guk geure buruari askoz ere gehiago errepikatzen diogula oro har. Kolektibo gisa, esan nahi dut; gero, pertsona bakoitza... Eta bai, nik uste dut Koro Navarrok segur aski bere bidea egin zuela,

eta ez zegoela inoren itzalean, baina Koro Navarro Koro Navarro da, ez dakit nola esan. Ez daude asko. Askoz ere gizon gehiago daude askoz ere gehiago sartu direnak, lasaiago segur aski, eta bai, argi dago oso jakintsuak direla, kristoren jendea, baina segur aski emakume asko ere bazeuden igual nibel antzeko bat zeukatenak, eta ez zirenak hor sartu eta ez ditugunak igual ezagutu ere egiten, edo pixka bat itzalean gelditu direnak. Nik ez daukat daturik, ez daukat zera tangiblerik, baina, mundua ikusita eta nire inguruari begirata, ondorio hori atera ahalko nukeela uste dut.

**ITZIAR:** Bestalde, laneko zortzi orduetatik kanpo, zenbat denbora izaten duzue itzultzeko?

**IDOIA:** Nik gaur egun ez daukat bestelako mugarik; esan nahi dut, ni ez nago umeak zaintzeko adinean, adibidez; orduan, eskain diezaioket batez ere gorputzak uzten didana. Alegia, ez daukat bestelako loturarik; beraz, nik eskaintzen dizkiot gaur egun —eta lehengo urtean ere antzeko zerbait egin nuen— bizpahiru ordu arratsaldeetan, eguneroko lan-jardunaz aparte. Gehiago ez; ez didalako buruak ematen, egia esan. Gero, konpentsatzen dut asteburuekin; asteburuak dedikatzen dizkiot normalean, igual, ez oso-osorik, baina neurri handi batean, orduz kanpo egiten dudana itzulpen horri, ze bestela ez zara iristen. Orduan, gutxienez, saiatzen naiz egun eta erdi izaten (asteburuko) astean kalitatezko denbora eskaintzeko itzulpen horri. Gehi egunero, ahal dudana. Ez daukat bestelako obligaziorik orain. Zaintza-kontuak eduki ditut... Urte luzez izan ditut zaintza-txanda luzeak, astean bi

egunetan gutxienez. Eta hori ere bukatu da. Orduan, oraintxe ditut arratsalde-iluntzeak libre. Eta horrek ere ematen du.

**MAIALEN:** Nik denbora oso-oso irregularra daukat, zeren pixka bat plurienplegatuta nago. Ohiko lanetik kanpo, egun batzuetan ordu bat daukat itzultzeko, beste batzuetan bi, beste batzuetan huts, eta asteburu batzuetan ere igual egun oso bat edo bi egun oso eman ditzaket, eta beste batzuetan ez. Pixka bat kaotikoa da. Zorionez, nik ere oraingoz ez daukat zaintza-lanik, ohikoez aparte, jendea zaindu egin behar baita, baina ez daukat haurrik. Pentsatzen dut edukiko ditudala zaintza-lan gehiago hemendik urte batzuetara; gurasoak edo dena delakoa tokatuko zait zaintzea, eta hori beste kontu bat izango da, baina oraingoz haurrik-eta ez.

**IDOIA:** Kuriosoa da gu honetaz hitz egiten aritzea.

**MAIALEN:** Bai...

**IDOIA:** Esan nahi dut seguruena gizona bati galdetzen baldin badiozu igual bururatu ere ez litzaioke egingo zaintza-konturik, ez? Edo igual bai. Ez dakit gauzak zenbateraino aldatu diren. Baina bai zuk eta bai nik aipatu dugu —nik behintzat oso garbi eduki dut—, ez bakarrik zaintza-lanak tokatu egingo zitzaizkidala, baizik eta ez niela iskin egingo, esan nahi dut, nik hor egon nahi nuela, alegia nire jendea zaindu nahi dudala. Hori hor dago, eta ez dakit zenbateraino izango den hori horrela beste kasu batzuetan. Eta ez dakit zenbateraino gauden gu programatuta erabaki horiek hartzeko.

**MAIALEN:** Bai, bai, nik uste dut baietz.

**IDOIA:** Alegia, nire buruan ez zen sartzen egoera horretatik kanpo gelditzea. Baina bi gauza dira: batetik da gutaz espero dena, eta guk geure buruari printzipioz ia eskatzen dioguna, eta bestea da baita ere zuk aukeratzten duzuna. Hor badago, nire ustez, konbinazio bat. Baina egia da: nik ez dakit kontu hauek, adibidez, gizonaek nola bizi ditzuten. Egia esan, ez naiz ausartzen esatera, baina iruditzen zait zaintzaren kontua ez litzatekeela hain automatikoa izango gizonaen artean holako elkarrizketa batean.

**MAIALEN:** Nik justu 30 beteko ditut datorren urtean, eta badaukat fase hori. Hurrengo hamarkada dator, gurasoak ere gero eta zaharrago, eta eduki dut kontu horrekin lotuta sentsazio hori: «Igual literatura orain itzuli behar dut, ze gero igual ezin dut». Bai, pasatu zait burutik; duela oso gutxi hasi naiz horretan pentsatzen, baina bai, nahiko argi daukat horrek eragina izango duela, dudarik gabe, honetan ere.

**ITZIAR:** Esperientziari buruzko datuak utzi eta datuei buruzko galderei ekiteko, zer esango zenukete emaitzetan ikusten den aldeari buruz? Alegia, EIZIEn eta EHUen, emakumezkoak gehiengo dira, baina narritiba itzultzen dutenen % 25 inguru dira emakumezkoak. Zein arrazoi egon daitezke horren atzean?

**IDOIA:** Ez dakit, niri boteprontoan bururatu zitzaizkidan txorakeria batzuk. Kontuan edukita literatura-itzulpena gehien-gehienetan desordutan egindako gauza bat dela —alegia, ohiko lan-jardunetik kanpo—,

bururatzen zait pentsatzea desordu horietan emakumeek gehienetan ordu libre gutxiago dituztela gizonezkoek baino. Zortzi orduko lanaz aparte emakume batek edo umeak ditu, edo garbigailua jarri behar du... Ez dakit arrazoi bat izan daitekeen, baina iruditzen zait erraz samar pentsa daitekeela faktore hori ere hor dagoela.

**MAIALEN:** Nik uste dut baietz. Aрги eta garbi. Era berean, uste dut hori asko aldatzen ari dela eta asko aldatuko dela, eta gainera oso azkar ari dela aldatzen, optimistegia izan gabe. Nik uste dut orain dela 30 urteko itzultzaile batzuek plantxatuta zeuzkatela alkandorak eta jana mahaian, eta, orduan, horixe, itzuli egiten zuten. Gaur egun segur aski ez da horrela, gizonek ere ez dute hainbeste denbora, eta emakumeek igual lehen baino pixka bat denbora gehiago daukagu. Gainera, karrerakoa hain da datu argia, ez? Nik 2011n amaitu nuen karrera, eta orduan ere lau mutil-edo zeuden gure klasean. Nik ez daukat frogarik, baina bost zentimoko nire teorietako bat da duela 30 urte euskalgintzan eta euskal kulturaren askoz ere presentego zegoela itzulpengintzaren rola garrantzitsua izango zela, alegia euskaldunok nahi genituela izan literatura unibertsala, beste hizkuntzetako literatura eta abar gure hizkuntzan. Eta horrek zer ekarri zuen, nire ustez? Bada, gizonak hortxe sartu zirela. Zeren, batetik, hautu ideologiko bat zen; alegia, «guk hau euskaraz nahi dugu, euskaraz bizi nahi dugu eta euskaraz egin nahi dugu kultura, eta hori ere euskal literatura izatea nahi dugu, eta, horretarako, itzulpengintza behar da». Eta, beste aldetik, gure mundutxo honetako prestigio-edo bat

ere bazeukan; lehen gehiago, orain baino. Nik uste dut euskal itzulpengintzaren beharra apalduz joan dela jendearen buruan eta horrekin batera gizon asko ere urrundu egin direla.

**IDOIA:** A, bai? Begira, nik ez dut hori inoiz pentsatu...

**MAIALEN:** Nik uste dut gizon gazteek gaur egun euskal kulturaren edo euskalgintzaren aritu nahi dutenean oro har jada ez zaiela burutik pasatu ere egiten «itzultzaile egingo naiz, zeren nik nahi dut erdal munduko literatura ere euskal literatura izatea». Nik uste dut beste bide batzuk hartu dituztela: «Artista izango naiz, idazlea izango naiz edo euskarako irakasle izango naiz». Ez daukat frogarik, e.

**IDOIA:** Niri oso gai interesgarria iruditzen zait itzulpenaren prestigioarena. Hasierako fase horretan badago erabaki bat; momentu batean, Martuteneko eskola sortu zenean ere bai; hor badago hautu bat: behar dugu kanpoko literatura euskaraz ipini. Eta hor zegoen taldean, seguruena, ba hor daude gizonezko izen oso ospetsu batzuk.

Baina egia da, baita ere, horrekin lotuta, niri beti atentzioa ematen dit, oraindik ere, irakasle ari direnen artean zer arrakasta eskasa daukaten itzulitako lanek. Alegia, ikasleei proposatzerakoan eta abar, jarraitzen dute «historiaurreko» gauzak bidaltzen, eta, ahal izanez gero, sekula ez itzulpenak, edo oso gutxi. Nik ez dakit esaten; nik ez dut sekula pentsatu, ez sekula aztertu, baina, egia da horrek baduela eragina langintzan bertan. Eta ez zitzaidan sekula bururatu zuk esan duzuna; nolabait prestigioa lortzearekin ba-



tera gizonak ere pixka bat... Ez nuen sekula pentsatu, baina igual badago hor...

**MAIALEN:** Nik uste dut ez dela kasualitatea. Orain, gizonak zerbait ideologikoa eta euskararen eta euskal kulturaren alde egin nahi dutenean, beste gauza batzuk egiten dituzte. Nik orain ikusten dudana bertsoa hori da: euskal literatura dagoela, hau da, euskaraz sortutakoa —teorian, zeren badakizu, gero, itzulpen intrakraneala izaten dela askotan euskaraz sortutako hori—, eta gero bestea sortzen dela aparte. Eta, orduan, nik uste dut mutil gazteek ez dutela ikusten hor bide bat gogobeteko dituen, eta emakumeok, berriz, hor ikusten dugu modu bat, inurri-lan isileko eta ezkutuko bat, gure ekarpena egiteko euskal kulturari, eta literaturari lotua, gainera. Hau da, nik uste dut momentu honetan emakumeontzat badela nahiko lanbide ideala, gauza horiek denak bateratzen dituen. Eta gizonentzat —oro har ari naiz berriro ere, noski— igual ez da hain erakargarria. Irudipena daukat. Ez daukat frogarik, eta ez dut ikerketarik egin. Baina iruditzen zait ez dela kasualitatea.

**IDOIA:** Bestalde, nik ez dakit gaur egun zenbateraino den horrela, zeren zuk, nik uste dut, karga ideologiko potente samar bat ikusten duzula horretan guztian, ez?

**MAIALEN:** Bai. Bueno, ez dut uste hori denik bakarrik.

**IDOIA:** Nire buruan pentsatuta, nik ez dut hainbeste pentsatzen euskal kulturari egingo diodan edo itzultzaile bezala taldeak egingo dion ekarpenean. Ni horretan askoz egoistagoa naiz; esan nahi dut: niri literatu-

ra gustatzen zait, eta hizkuntzak gustatzen zaizkit. Baina, kolektiboki ere, ez dakit gaur egun zenbateraino funtzionatzen duen hautu ideologiko horrek; niregan, behintzat, ez du funtzionatzen. Momentu batean, igual, garai batean, egoera askoz anormalago batean... Baina hori niretzat aspaldi bukatu zen, nik ikusten dudana bezala behintzat. Nik gaur egun ez daukat euskalgintzari ekarpenik egiteko beharrik, gogo berezirik, ez; esan nahi dut hautu ideologiko modura, batez ere. Jakina, ia-ia euskararekin lotuta dagoen guztiak dauka kargaren bat. Baina, nire kasuan behintzat oso gauza zeharkakoa da gaur egun, eta da gehiago zure ama-hizkuntzetako bati egin nahi diozun gauza bat, hizkuntza horretara pasatu nahi duzulako zuk ezagutzen dituzun eta beste hizkuntza batzuetan dauden eta ikaragarri estimatzen dituzun lan batzuk, hizkuntza horretan ere egon behar luketela uste duzulako. Baina askoz gehiago dago lotuta nire gustuekin eta nire irizpide estetikoekin, hautu ideologiko batekin baino. Baina zuk historian egiten duzun bide horrek uste dut badaukala zentzurik. Nik ez nuen sekula pentsatu hori, baina seguruenen badago prestigioarekin-eta lotutako zerbait. Eta ez dakit gaur egungo gazteen artean hautu ideologiko horrek zenbaterainoko pisua daukan.

**MAIALEN:** Nik uste dut euskara xede-hizkuntzat aukeratzea bera badela hautu bat; inkontzienteki bada ere, bada hautu bat, eta ez da bide errazena. Bada bide, igual, zailxeago bat. Hori esan nahi nuen. Eta ez dut esaten hemen sartzen garen guztiok horretarako sartzen garenik; «nik konponduko dut euskararen egoera». Inondik



ere ez. Asko da bizioa eta gustua; esan nahi nuena zen, eta igual ez dut oso ondo esplikatu, lotuta daudela, azken batean, euskal kulturako ofizioak. Niri gustatzen bazait itzultzea, oso posible da niri gustatu izatea edo niri burutik pasatu izana kazetari-tzara dedikatzea, adibidez. Edo idaztea... Edo, are, jendeari euskara irakastea, edo hizkuntzekin zerbait egitea. Esan nahi dut erdi-lotuta daudela ofizio horiek, eta, jendea orain sartzan denean sektore horretan, multzokatu baldin badaiteke, ez duela hautatzen itzulpengintza ez zaiolako erakargarria. Akaso gustu-kontuengatik ere bada. Ez zaio erakargarria ez diolako zentzu handirik ikusten, beste bide batzuk interesgarriagoak eta beharbada gogobetegarriagoak iruditzen zaizkiolako.

**IDOIA:** Bai, oihartzun handiagoa daukatela, baita ere.

**MAIALEN:** Bai, eta hobeto ikusita daudela, eta hori esan nahi nuen prestigioaren kontuarekin. Ez soilik ideologia eta politika eta ez-dakit-zer, baizik eta gustuz ere zer bide hautatzen duen bakoitzak.

**IDOIA:** Gero, hor badago gizartearekin zerikusia daukan prestigioaren kontu hori. Eta badago, bestalde, ofizioak berak daukan ikusezintasunerako joera bat ere. Nik ez dut pentsatu zuk esan duzun horretan, baina seguruenen badago hor zerbait, badirudi itzultzaile eta idazleen artean ere badagoela beti horrelako zera bat; badirudi idazle izatea kategoria handiagoko zerbait izatea dela. Pentsa, lehengo batean, Dürrenmatten liburua zela-eta, Onda Cerotik deitu zidaten galdezkeo ea nola ikusten nuen itzulpengintzako

ez-dakit-zer eta abar. Eta horixe bera galde-tu zidaten: «Zuk inoiz idatzi duzu?». Alegia, badirudi itzultzea dela aurreko fasea; horrekin hasten zara, baina zure ambizioa beti da idaztea.

**MAIALEN:** Bai, ematen du idazle frustratu batzuk garela.

**IDOIA:** Bai, hori da. Egongo da beharbada hori ere, eta egia da askotan gertatzen dela literatura gustatzen bazaizu, batzuetan, idatzi duzula zerbait, edo ez. Beti egingo zaizu gertukoa idazle baten dena delakoa, baina ez du zertan esan nahi zuk ere idatzi egingo duzunik beti, ezta? Horretaz ari garenean hain da ebidentea oso alor diferenteak direla, ez duzu nahi eta nahi ez egin behar. Eta egia da itzal horretan emakumeok oso ondo enkajatzan dugula: ez duzu soinurik egiten, beste munduko protagonismorik ez daukazu.

**MAIALEN:** Zure lana egin eta kito.

**IDOIA:** Hori da, listo. Batetik, gizarteak bakean uzten zaitu oso eroso delako zu bakean uztea; zuk onartzen duzu rol hori eroso zaizulako; ez duzu protagonismo handirik; beraz, presio gutxiago. Eta hor badago bi aldeetatik, seguruenen: ez dizute kasu askorik egiten, eta zuk onartzen duzu ondo datorkizula inork kasu handirik ere ez egitea.

**ITZIAR:** Emakumezkoen kopuruan egon den bilakaerari buruz, zer esango zenukete?

**MAIALEN:** Grafiko hori oso interesgarria da.

**IDOIA:** Ni harrituta gelditu naiz 2009tik aurrera dagoen salto izugarri horrekin, eta, gero, azkenengo piko horrekin.

**MAIALEN:** Bai. Ez da kategorikotzat hartu behar, ze igual hurrengo urtean berriro behera egingo du. Baina, argi dago: nik uste dut ez garela iritsiko beste urte batzuetako % 10 horretara. Nik uste dut honek jada atzerabiderik ez daukala; espero dut. Gora-beherak bai, baina atzerabide nabarmenik uste dut ez duela izango. Ikusten da 2009tik aurrera igoratzeko bat dagoela.

**IDOIA:** Zein dira krisi ekonomikoaren urterik gogorrenak?

**MAIALEN:** 2008 eta 2012-2013 artean.

**IDOIA:** Ez dakit horrek ere eraginik izan duen; esan nahi dut, nik pentsatu nuen beharbada baietz. Krisi ekonomiko okerre-naren garaian...

**MAIALEN:** Ba justu hor hasi zen igotzen...

**IDOIA:** Zenbateraino dagoen emakume gehiago lan prekarioekin, eta dituen posibilitateak nolabait gehiago ustiatzen dituen ez daukalako beste aukera askorik ere. Eta igual beste momentu batean beldurrez ez du egin, eta orain halabeharrez egin du.

**MAIALEN:** Dirua behar du, eta batez ere lehiaketan saiatzen da, hor badagoelako diru pixka bat.

**IDOIA:** Hori da. Pentsatu nuen, baita ere, akaso horrek ere izan dezakeela eragina. Igual ez da faktore nagusia izango, nork jakin, baina izan daiteke.

**ITZIAR:** Azken 15 urteetako batez bestekoa ia % 30 da. Orduan, hori bada orokorra baino apur bat altuagoa.

**MAIALEN:** 2017koa izugarria da, eta, gainera, hor narratibakoak bakarrik daude. Nik uste dut asko ari dela aldatzen kontua, eta gero eta gehiago garez gero eta gehiago egiten dugula. Hori nik uste dut, dudarik gabe, naturala dela. Prestigioarena, esan dudana bezala, ez dut uste hori denik bakarrik, baina nire ustez bada arrazoietako bat. Eta, gainera, hor badago iman-efektu bat-edo; zenbat eta feminizatuago, gizonen ere orduan eta erreferente gutxiago hor, eta orduan gizonak ere gero eta gutxiago. Batetik bestea elikatzen du: zenbat eta gutxiago egon, orduan eta gutxiago sartzen dira. Bestalde, azken urteetako kontu horretara itzulita, nik uste dut belaualdi-aldaketa dagoela nabarmen; feminizatzen ari da, eta, beraz, batzuk erretiratzeko ari dira. Itzultzaile-jendearekin hitz egitean-eta, sentsazio hori badago, ez? Batzuk lekua uzten ari direla, edo oso proiektu jakin berezietan ari direla. Ez dira hainbeste aurkezten batzuk lehiaketetara ere...

**IDOIA:** Nik uste dut ari direla, nolabait...

**MAIALEN:** Lekukoa ematen, nik uste.

**IDOIA:** Hori da. Eta izan duten posizio zentral horretatik, erabat utzi gabe, zeren horretan ari dira, baina izan duten presentzia % 100eko zera horretatik pixka bat apartatuta. Ez dakit zenbateraino aukeratuta. Edo zenbateraino den bultzadaren eragina, normala den bezala.

**MAIALEN:** Bietatik egongo da, ez?

**IDOIA:** Hori da. Eta normala da, gainera; hala behar du. Bultzaka ere kendu behar da batzuetan jendea dagoen lekutik, eta are nabarmenago atzetik datorrena zu baino hobea baldin bada. Edo zuk egin ez dituzunak probatu nahi baldin baditu. Hori normal. Baina iruditzen zait aldaketa hori nahiko natural gertatzen ari dela.

**MAIALEN:** Bai, nik uste dut oso naturala dela.

**IDOIA:** Ez da talkarik gertatzen ari, eta, gainera, uste dut belaunaldi berrian badatozela batzuk indar handiz, eta pozgarria da hori ikustea. Eta, aldi berean, nik uste dut badaudela *dinosauroen* artean eskuzabaltasun handiz jokatzeko ari diren batzuk; ez bakarrik lekua utziz, baizik eta lekua hartzera gonbidatuz, nolabait esateko, eta, gainera, erakutsiz. Eta pisu handia izan duen jendea hori egiten ikustea, egia esan, pozgarria da; pozgarria den bezala ikustea gazteak nola datozen bultzaka. Eta, alde horretatik, adibidez, Maialen bera da belaunaldi berri horren adibide bat, eta, ikusten duzunean nolako kalitatearekin datozen batzuk, izugarri pozgarria da. Horretan, adibidez, nik uste dut, orain, Munduko Poesia Kaietretan, adibidez, hor jende gazte asko ere ari dela sartzen. Eta ikaragarria da ikustea ze gauza politak ari diren ateratzen. Bilduma horretan badaude batzuk oso gazteak direnak, eta batzuek ikaragarriko lan politak egin dituzte. Zurea bat.

**MAIALEN:** Nik uste dut hor hautu kontziente bat badagoela; hori ere aipatu nahi nuen, bilduma- edo argitaletxe- edo editore-lanetan dabilen jende jakin batek txipa jarri

duela, eta iritsi zaiola gure aditzea, emakumeona, gazteona, eta orain argi daukatela: hauek onak datoz, edo emakumeak onak ziren duela 20 urte ere eta pixka bat ezkutatatu ditugu. Eta orain ari dira egiten txipaldaketa hori. Susako Kaietretan, adibidez, nabarmena da.

**ITZIAR:** Argitaletxeen grafiko horretan [6. grafikoa] ikusten da, adibidez, Katakraken kasuan. Bi liburu dira —gutxi dira, beraz—, baina hiru itzultzaile aritu dira, eta hirurak emakumezkoak.

**MAIALEN:** Hori uste dut aldatu egin dela orain. Gainera, Angela Davisenean ere badakit gizonak dabiltzala [*Emakumeak, kultura eta politikari* buruz ari da; bost itzultzailetik hiru gizona dira. 2018an argitaratua izateaz gainera, saiakera da; horrenbestez, guk aztertu dugunetik kanpo dago, eta ez da datuetan ageri]. Baina egia da hor ere ikusten dela hautu kontziente bat. Eta, gero, aipatu nahi nuen ni oso eskertua nagoela eskarmentu handiko jendeak ikusten zaituelako eta zure izena ematen diolako jende horri. Nik horrela lortu ditut gauza asko. Azkenean, zure izena esaten dutenean, laguntza handia da, eta alde horretatik bai ematen ari zaizkigu konfiantza, bai berrioi eta bai emakumeoi, bidetxo hori hasteko.

**ITZIAR:** Bilakaerari buruz beste zerbait?

**MAIALEN:** Nik beste zera bat daukat; igual hedabide batean nabilelako lanean, baina badaukat sentsazioa hedabide batzuetan ere belaunaldi berrikook eta, beraz, nola gehienok emakumeak garen, emakumeok ere itzultzaile moduan ari garela gehixeago

ateratzen. Igual, lehen, itzultzaile-jendea elkarrizketatzen zutenean edo deitzen zietenean iritzia emateko, gizonak izaten ziren; eta orain hori orekatzen ari dela iruditzen zait. Jende berria ere iristen ari da; sartzen ari gara hedabide edo kultur leku publiko horietan, bai aurrean eta bai atzean ere. Ez dakit, igual inpresioa da.

**IDOIA:** Litekeena da. Ez dakit zenbateraino dagoen gure lanbidearekin lotuta edo alor guztietan pixkanaka zabaltzen ari den horrekin; badirudi gero eta bisibleago garena, edo behintzat bolada horretan gaudela. Hori ez dakit zenbateraino izango den moda-kontu bat edo... Ze batzuetan sentsazio hori ere badaukazu, zeren horrelako gauzak esateak dena saltzen laguntzen du. Non geldituko den hori ez dakit, baina egia da, eta nik alde horretatik uste dut *Berria* egiten ari dela hori kontzienteki. Emakumeak plazaratze hori sistematikoki egitea. Horrek eragina dauka gure lanbidean, besteak beste oso feminizatua dagoelako. Orduan, olatu horretan gaudenez, badirudi guk ere, itzultzaile bezala ere, lehen baino bisibilitate handixagoa daukagula.

**MAIALEN:** Bai. Eta, gero, ezagunxeago, edo zure aurpegia publiko egiten den heinean, proiektu gehiago-eta lortzen dituzu.

**ITZIAR:** Bestalde, lehiaketa bidez esleitutako lanei eta bestela esleitu direnei dagokienez, ikusten da lehiaketa bidez zertxobait gehiago izan direla emakumezkoak. Zer uste duzue horren inguruan?

**IDOIA:** Normalean, lehiaketetan, baldintzak hobeak dira. Nik esango nuke, seguruen,

lehiaketak, beti edo ia beti erakunde publikoen babesak daukaten neurrian, ondoen ordaindutakoak izaten direla. Horrek izan dezake eragina. Beste faktorerik badagoen, ez dakit.

**MAIALEN:** Niri batzuk okurritu zaizkit. Nik lehiaketari bi gauza ikusten dizkiot, baldintza ekonomikoez eta bestelakoez gainera, emakumeon alde jokatzeko dutenak eta emakumeon kontra-edo. Alde ikusten dut anonimoa dela; sexu- eta genero-aurreiritzirik ez dagoela. Eta ikusten da zer gertatzen den, zer saritzen den, adibidez, Euskadi Sarietan eta zer literatura-lehiaketa anonimotetan; hor sekulako desoreka dago. Literaturako liburu anonimotak direnean, Elkarrek ateratzen dituen beketan, adibidez, emakume pila bat atera dira. Ez da kasualitatea ere zein egoten den epaimahaian, eta abar. Hor faktore asko daude: ez dut esaten anonimotasunarengatik bakarrik denik. Baina nik uste dut lehiaketak badaukala alde on hori. Baina alde txarra ere ikusten diot, txarra-edo: emakumeak normalean lehiarako uzkurragoak izaten garena eta beldur handiagoa izaten diogula porrotari. Nik lehiaketari hori ikusten diot. Horregatik, datua ez dakit oso ondo nondik hartu, zeren iruditzen zait, batetik, emakumeak igual gehiago aurkeztuko direla baldintzengatik, baina iruditzen zait, era berean, gutxiago aurkeztuko direla lehiari beldurra diotelako. Orduan, ez daukat oso argi. Nik faktore horiek ikusten ditut.

Eta, gero, lehiaketan ez baizik eta bestela esleitutakoei dagokienez, iruditzen zait oso azkar aldatzen ari dela kontu hori. Ahoz ahokoak asko funtzionatzen du, eta nik uste dut ahoz ahokoan gero eta gehiago sartuta

gaudela eta gero eta gehiago ateratzen direla gure izenak; lehen igual ez hainbeste. Beraz, kuantitatiboki nik uste dut orekatzera doala, eta are gainazpikatzen doala kontua urteekin eta urteekin. Besterik da kualitatiboki zer pasatzen den. Alegia: norbaitek itzultzaile bat behar duenean lan estandar arrunt bat egiteko, nik uste dut arazorik gabe jotzen dela emakumeengana zein gizonengana. Baina, norbaitek baldin badauka sekulako lan zail bat, *kutixi* bat, gauza oso berezi bat, zeini deituko dio? Airean uzten dut galdera; nik ere ez dakit. Igual, baliteke oraindik ere kualitatiboki jendearen buruan itzultzaile bila doazenean hierarkia txiki horrek hor jarraitzea. Susmoa daukat. Nik neuk ere barneratua baitaukat hori; nik jo beharko banu norbaitengana, zein etorriko litzaizkidake lehenbizi burura? Eta, horrez gain, iruditzen zait oraindik ere editore-munduan, adibidez, segur aski gizonezkoak direla nagusi, ez?

**IDOIA:** Hori da. Nik ere aipatu nahi nuen kontu hori, zeren nik uste dut hor oso nabarmena dela. Nik ez dut ezagutzen edizioaren munduan arduraren batekin dabilen emakumerik. Ezagutzen ditudanak gizonezkoak dira. Itzulpengintzan dabiltzan argitaletxe gehienetan, figura zentralak gizonezkoak izan dira eta dira oraindik ere. Horietako batzuk itzultzaileak dira, gainera. Eta orduan horrek zerbait esan nahi du, noski.

**MAIALEN:** Aurreko batean idatzi nuen bezala, inkontzienteki anaitasun-sare hori daukatelako izango da, baina elkarren iman erreferentzialak eta profesionalak dira gizonak, esparru guzti-guztietan. Hori horrela da, intentzio txarrik gabe.

**IDOIA:** Baina funtzionatzen du, bai.

**MAIALEN:** Horrela da arlo guztietan, eta nik uste dut horretan ere hala dela. Ez dakit zer pasatuko den hemendik aurrera. Aldatu egingo da.

**IDOIA:** Nik uste dut baietz, belaunaldi-alda-keta horrek ekarriko duela hori.

**ITZIAR:** Azkenik, etorkizunari dagokionez, badirudi argi duzuela kopuruak aldatuko direla.

**IDOIA:** Nabarmen aldatuko da hori, bai.

**ITZIAR:** Berez.

**MAIALEN:** Nik uste dut berez. Berez, baina ekinez.

**IDOIA:** Berez, bai. Batetik, feminizazioarena garbi dago, karreratik beretik hasita. Baina inportantea da ez bakarrik zenbatekoak aldatzea, baizik eta prestigioaren zenbatekoak aldatzea. Alegia, hemendik aurrera, emakumeen ehunekoa, demagun, % 70 izango da. Bai, baina zenbaterainoko balioa ematen zaio horri?, zenbateko oihartzuna dauka horrek? Esan nahi dut, etxe-garbitzaileen artean ere gehienak emakumeak dira, eta? Hor bi aldeetako zerak egon behar dute. Eta uste dut inportantea dela bi faktore horiek batera mugitzea: zenbateko absolutu eta erlatiboak, eta kalitateari, eta, beraz, izen onari lotuta joango direnak. Zeren hori komeni zaigu: komeni zaigu ez bakarrik itzultzaileen artean emakume kopurua igotzea eta editoreen artean emakume kopurua igotzea, baizik eta jende horrek merezi duen prestigioa izatea. Eta prestigio eta izen on hori pixka-

naka egiten den gauza bat da, alor guztietan. Ni, alde horretatik, optimista naiz; gehiago kezkatzen nau, nolabait esateko, oro har itzulpengintzaren eta humanitateen munduak daukan gainbehera horrek. Eta horrek harrapatzen gaitu bete-betean. Beldur gehiago ematen dit, hori guztia dagoelako gurpil handi baten barruan, eta, gurpil horretan, hizkuntzarekin, itzulpengintzarekin, idazkuntzarekin zerikusia daukan horrek, oro har, daukalako gero eta prestigio eskasagoa. Badirudi ingeniaria ez baldin bazara ez duzula ezertarako ere balio. Horrek sortzen dit kezka, zeren horrek eragina izango du guregan. Baina, barruan sartuta, fokoa dagoen lekuan sartuta, hor ikusten dut ari dela gertatzen gertatu behar zuena. Ni alor horretatik optimista naiz. Orain, beste uholde orokorrago horrek non harrapatuko gaituen ez dakit. Ez dut uste hori jada euskalgintzarekin lotutako arazoa denik, baizik eta askoz ere orokorragoa, beste eskala batekoa. Guri dagokigunaren alde horretatik, uste dut egin behar genukeen bidetik goazela. Beste gauza bat da hor Administrazioak ere zer zeresan duen. Aspaldiko kexa da Administrazioak ez diola ematen itzulpengintzari daukan garrantzia. Baina arriskutsua da, zeren hasten baldin bagara hori ere bultzatzen, laguntzen eta azkenean tutelatzen, bada betikoa. Nik uste dut hor badagoela zer eskatu oraindik: Administrazioak askoz gehiago inplikatu behar luke horretan, eta, beraz, horrek ere emango lioke bultzada belaunaldi-aldaketa hori ekartzen ari den guztiari. Baina hori eskaera orokorragoa da. Generoaren aldetik, nik uste dut bide onetik doala. Orain, zer gertatuko den hemendik 30 urtera, ez dakit. Oso zaila da hori esaten. Baina iruditzen

zait langintzak daukan eskulan aldetik, faktore horretan edo alderdi horretan gertatzen ari den aldaketa bide onetik doala.

**MAIALEN:** Nik ere uste dut bide onetik doala; orain, gorabidean gaude, alde horretatik. Oraindik uste baino gehiago kostatuko zaigu, beharbada, literaturako ehunekoak eta besteak berdintzea, baina bide horretan goazela uste dut. Susmoa daukat iritsi baino lehenago joko dugula kristalezko sabai bat. Bi ehunekoak orekatu baino lehen emozio-natuko gara, eta halako batean konturatuko gara estankatu egin garela. Ez dakit, susmoa daukat, zeren hori gertatzen da hainbeste gauzatan... Sartzen gara, sartzen gara, bai, baina bat-batean ikusten duzu ezetz, hala ere ehunekoak ez datozela bat; ez datoz bat inondik ere. Gizon gehiegi dago eta emakume gutxiegi. Argi eta garbi esateko. Bai, oraintxe optimista naiz, zeren gorabidea ikusten dut argi eta garbi, eta uste dut goraka egingo dugula, eta orekatzera egingo dutela kopuru horiek; kuantitatiboki ari naiz, noski. Baina beldur naiz beste gauza askotan gertatzen den bezala ez ote dugun, berriro ere, iritsi baino lehen goia joko goia jo gabe.

Bestalde, nik beldur handia daukat gauza batekin: prekarizazioarekin. Kasualitatez, lan feminizatuak prekarizatzen dira; zenbat eta prekarioago, orduan eta feminizatuago; zenbat eta feminizatuago, orduan eta prekarioago. Horregatik, ni orain horretan ez naiz batere optimista; beldur handia daukat zer pasatuko den gure lan-baldintzekin, zenbat gehiago feminizatu eta prekarizatu den ofizioa. Eta uste dut borroka handi bat tokatuko zaigula alde horretatik, eta guk

egin beharko dugula, gainera, zeren ez dut uste inor etorriko denik guri ezer ematera. Borrokatu egin beharko gara, eta ez dut uste gero eta prestigio handiagoa etorriko zaigunik, baizik eta aldrebes, gero eta gu-

txiago edukiko dugula; humanitateen gain-behera horretaz gainera, feminizazioaren prestigio-gabezia gradual hori ere etorriko zaigu, eta hor borroka oso inportante bat edukiko dugu aurrean.



### **Resumen**

En la base de esta entrevista realizada a las traductoras Maialen Berasategi e Idoia Santamaría se encuentra el trabajo de fin de grado «Análisis desde la perspectiva de género de las traducciones del género narrativo realizadas entre 1990 y 2017». El objeto de la entrevista es saber cuáles son las razones que podrían estar detrás de los datos que revela dicho trabajo. En la primera parte hablan de su experiencia como mujeres que se dedican a la traducción literaria, y posteriormente comentan los datos del estudio.

### **Résumé**

Cet entretien avec les traductrices Maialen Berasategi et Idoia Santamaría se base sur le mémoire universitaire « Analyse des traductions de la littérature en prose réalisées entre 1990 et 2017 à travers la perspective de genre ». Le but de cet entretien est de savoir quelles sont, selon elles, les raisons qui pourraient être à l'origine des données dudit mémoire. Dans un premier temps, elles répondent aux questions sur leur propre expérience en tant que femmes traductrices de littérature, puis sur les données étudiées.

### **Abstract**

This interview with translators Maialen Berasategi and Idoia Santamaría focuses on the dissertation entitled "Gender analysis of narrative translations from 1990 to 2017." Interview questions focused on what they believe are the reasons behind the data presented in this work. First they discuss their own experience as translators from the point of view of female literary translators, then they explain their data.